

Villabona Eginez



2011ko martxoa

HERRITIK HERRIARENTZAT LANEAN




Villabonan
GARAJEAK
SALGAI eta ALOKAIUAN
oso prezio onean

(75 urtetako emakida/concesión a 75 años)

Informazioa:

Udaleko idazkaritzan: Errebote plaza z/g
Tel.: 943 69 21 00 • villabona@udal.gipuzkoa.net



SALGAI
ALOKAIUAN



Itxiak
eta
marradunak

Maialen Abaigar ◊ Euskara eta Hezkuntza zinegotzia

Maialen Abaigar herriko Euskara eta Hezkuntza zinegotzia da. Remiren heriotzaz geroztik, Gazteria Saila ere bere esku dago. Udalaren egoeraren eta udal taldearen kudeaketaren inguruan aritu da.

«Zoritxarrez, euskaldunak arrotz gara gure etxean»

Zer moduzko legealdia izanda, amaizten ari den hau? Zein balorazio egingo luke ezker abertzaleak?

Oso legealdi gogorra izan delakoa nago. Arrazoi desberdinengatik baina ezker abertzaleak oso baldintza desegokitan aurre egin behar izan dio Villabonako herriaren aldeko lanari. Iusioz eta ekimenez beterik hasi genuen legiatura, herritarrek gudan jarri zuten konfiantzari zor genion errespetutik abiatuta, baina gauzak asko okertu ziren. Lehenik, gure alderdiaren legez kanpoko egoera. Horrek udal kudeaketan eragiten dituen oztopo guztiak. Inolako kanpoko laguntzarik gabe lan egin behar izan dugu, gure alderdiaren arduradun eta aholkulari ia gehienak kartzelako bidean jarriak izan direlako. Gezurra dirudi baina politika egiteagatik gure alderdikide asko eta asko espetsxean daude.

Bestetik, poliziaren neurrigabeko jazarpena bizitu du ezker abertzaleak eta Villabonak, batez ere presoan argazkien inguruan sortu eta sustatu den sorgin ehizak ondorio negargarriak ekarri ditu. Euskal Herriak bizi duen gatazkaren alde guztiak ezagutu ditu Villabonak azken lau urte hauetan; bi oso latzak, tortura kasu larriak bi herrikideri. Tesuinguru honetan, Remiren heriotza kokatu behar dugu. Argi daukat, uztailaren 31n neurrigabeko Ertzaintzaren jokaldi hark Remiren bihotza leherrarazi zuela. Asteak zeramatatzaten, Madrildik diseinatuta, herria tenkatzen. Horren adibide dira zenbat komunikabide zeuden hilero egiten dugun enkarteladaren ordu berean. Nork ez daki Villabonan, hileko azken ostiral guztietan, urteak daramatzagula presoan aldeko elkarretaratze hori egiten? Zergatik Villabonan?

Legealdi hasieran jarritako erronkak betetzea lortu al duzue? Zeintzuk?

Batzuk bai eta beste batzuk ez. Villabonako ezker abertzaleak oso egitasmo ambiziosoan zuen duela lau urte, eta orain ere ambizio berberakin aurkezteko gara. Hori esanda, udal kudeaketan beti gauza bat gertatzen da. Asmo asko izan ditzakezula, baina gero horiek gauzatzeko bidean – praktika eramateko, alegia– hainbat



oztopo izan ei dira. Lau urte hauetan izan dugun oztoporik nagusia, billabonatar guztiak izan duten berbera dela uste dut, krisiarena. Krisiak asko mugatu gaitu. Asmo asko tiraderan gordetzea eraman gaitu eta beste zenbait beste modu batera bideratzera. Hori gehitzen badiogu kasik bi urte baino gehiagotan bi zinegotzi gutxiagorekin lan egin behar izan dugula, ikusi daiteke (Remiren heriotzari gehitu behar baitiogu Josune Arretxeren heriotza gaixotasun baten ondorioz eta kontutan hartu alderdien legeak ez duela biderik uzten hauek ordezkatzeko) gure arazo nagusien dimentsioa. Eskertzekoa da era berean, hainbat herritar eta ezker abertzaleko zerrendetan joan ziren herrikideek eskaini dituzten laguntza, ezinbestekoa izan baita gauzak aurrera eramateko. Baita Remiren eta Josuneren heriotzaz geroztik jaso dugun babes eta laguntza guztia ere.

Zein izan da ezker abertzaleak arlo instituzionalean izan duen kudeaketa eredu?

Gure udal eredu bat mailatan bereziko nuke: bata ideala dena, hau da, Villabonako herria billabonatar guztien artean eraikitzea bilatzen duen kudeaketa eredu

bat, non herritarrok erabaki eta diseinatuko dugun nolakoa izan behar den billabonatarren etorkizuna. Bestea, erreala-edo; ideala ez baita beti posible (askotan inoiz, denak atsegin izatea ia ezinezkoa baita). Asko saiatu gara bi mailatan, herriari alkatearen bulegoa irekitzen, eta uste dut hori asmatu dugula, Villabonako alkatea edozein herritarri atek irekita egon da.

Bestetik, herriko eragileak askoz ere gehiago kontuan hartuko diren eredu behar izan dugu, herritarren beharretan eta haien parte-hartzean oinarritutako kudeaketa martxan jarrita. Zentzu horretan, ezker abertzaleko zinegotziak herritarrengandik hurbil egon direla uste dut. Hori horrela izan zedin indar asko egin dugu. Argi dut asko daukagula hobetzeko. Villabonako herriak parte hartzeko askoz bide gehiago behar dituelako.

Remi Ayestaranen heriotzak marra gorria markatu du Udalean. Heriotzaz geroztik, zer-nolako egoeratan geratu zen udala?

Remiren heriotzak, alderdikide eta Villabonako Udaleko alkateordea galtzeaz haratago, lagun handi bat eta asko maite eta estimatzen genuen lagun leial bat

galtzea ekarri du. Villabonako ezker abertzalearentzat Remi oso kide esanguratsua izan da eta asmo eder asko genituen berarekin, ideia asko zituen pertsona zen eta oso atsegina zen berarekin lan egitea; zorrotza eta aldi berean emankorra zen. Baina amets guztiak zapuztu zizkiguten. Min asko daukagu. Gorroto asko ere izan dugu. Baina min eta gorroto guztiaz haratago ezker abertzaleak argi izan du iparra,

«Alkatea edozein herritarri atek irekita egon da, hori asmatu dugu»

«Oposizioak ez du apenas lanik egin herriaren alde lau urte hauetan»

eta zentzu horretan ez ditugu minutu batean ere gure zereginak alboratu. Remi hil eta hurrengo egunotan egin genituen agerpen publiko guztietan esan genuen guk aurrera egin behar genuela gure egitasmo politikoarekin eta orain gainera, arrazoi bat gehiago dugula.

Zeri edo zeini egin behar izan diozue aurre? Oposizioak zer jarraera hartu zuen?

Remi udalean egiten zuen lana oso nabarmena zen. Herritar guztien bistan zegoen gauza bat dela uste dut. Beraz, Remiren figuraren desagerpenak, Josuneren heriotzarekin batera, gure udal gestioaren motorra asko moteldu zuen. Hori begi-bistakoa da, ez da berdin lau pertsonen lan egitea edo seiek lan egitea, bistan denez. Villabonan oposizioari bozka eman zieten herritarrek jakin behar harko lukete, oposizioak ez duela apenas lanik egin herriaren alde lau urte hauetan. Izugarriko mina egin zigun Bakartxo Tejeriaren adierazpenak Remi hil eta egun batzuetara osoko bilkura berezia deitu genuelako. Donostiako EAJ-ren bulegotik faxez mezu bat igorri zuten komunikabide guztietara, ez zirela osoko bilkura etorriko esanez. Honen arrazoiak: ez zegoela arrazoi nahikorik osoko bilkura egiteko. Zur eta lur geratu ginen.

Uste dut, Villabonako herri osoa zur eta lur geratu zela. Ez da berehalakoan ahanztiko. Hala eta guztiz ere, EAJ-ko udal taldeari Mendiak eta Ingurumena saillean lanean jarraitzeko gonbita luzatu diogu.

Oposizio izan duen jarreraren aurrean, zer analisi egiten du ezker abertzaleak? Zein paper jokatu du EAJ-k? Zer gertatu zen zentsura mozioarekin?

Gu bakarrik aritu gara udalean lanean. Remiren eta Josuneren heriotzaren ondotik zenbait kasutan, plenoan *quorum* nahikorik ez eta hainbat gai aurrera ateratzeko gu aritu gara haietako, osoko bilkura etortzeko eskatuz, herritarrentzako garrantzitsuak diren gaiak zeudela eta. Iru-dikatu egoera: agintean dagoen alderdia osoko bilkura etortzeko oposizioari deika. Hala eta guztiz, ez dira askotan etorri. Arrazoiak, haiek jakingo dituzte. Uste dut, batez ere EAJ-ko udal taldeak utzikeria nabarmena izan duela bere boz-emaileekiko. Gertatuaren ideia bat izan dezakegu. Hori, zentsura mozioarekin oso lotuta dagoela uste dut. Villabonako EAJ (euren esanetan euren borondatearen kontra) bete-betean sartu zen Maixabel Arrietaren aurka. Zentsura mozio bat aurkeztu zuten. Remi pleno hartan oso ondo agertu zirenen arrazoiak. EAJ erabat lerratu zen espainiar Estatuak gure alderdia instituzio guztietatik alboratzeko diseinatu zuten estrategiarekin, orain, alderdien legearen aurka daudela agertzen badira ere. Bakartxo Tejeriak Maixabel Arrieta kentzeko saiakerari argi berdea eman zion Villabonan. Herriak ordea, Maixabeli babes zabala agertu zion eta mozio hori ez zen aurrera atera. Hori da nik uste euren utzikeria agertzeko arrazoi nagusia.

Gaur egunean kokatuta, zer analisi egingo zenuke?

Euskal Herria egoera politiko oso interesgarri batean aurkitzen da. Ezker abertzaleak ekarpen politiko oso interesgarri bat egin duela nago. Kasik bi urte pasa ditugu herriz herri eta auzoz auzo eztabaidatzen eta orain gure ekarpena euskal herritarren eskutan jarri dugu. Euskal Herriak, bere independentzia lortzea lehentasunezkoa



«La alcaldesa ha mantenido las puertas de su despacho abiertas en todo momento, creo que en eso hemos acertado»

➔ Maialen Abaigar es concejala de Euskara y Educación, también se hizo cargo del departamento de Juventud después de la muerte de Remi Ayestaran. Los últimos años han sido duros para el consistorio, pero no sólo se han visto afectados por la crisis, «como todos los billabonataras», a esta dura situación hay que sumarle otras muchas fatalidades tal y como cuenta Abaigar. Las muertes de Remi tras «el acoso desproporcionado de la policía», la de Josune Arretxe por enfermedad, la moción de censura presentada por el PNV contra la alcaldesa, Maixabel Arrieta, ... «El pueblo, sin embargo, se volcó con Maixabel y esa es la razón por la que el PNV ha dejado de lado sus quehaceres en el ayuntamiento», aclara Abaigar sobre el último punto.

La joven concejala recuerda que Euskal Herria se encuentra en un momento clave y que trabajarán para que podamos «tener nuestras propias herramientas sin ningún tipo de dependencia». En cuanto a los retos de futuro Abaigar cuenta que sobre todo trabajarán en dos direcciones: «Por una parte trabajaremos que salir de la crisis de la mejor manera posible y haremos un estudio sobre las necesidades de los ciudadanos. Por otra parte, activaremos un plan para impulsar la cultura vasca y el euskara. No podemos olvidarnos de la necesidad de tener una casa de cultura, siempre y cuando se utilice para impulsar la creación cultural».

Para terminar aclara que la izquierda abertzale de Villabona constituye la «única alternativa real» de cara a la próximas elecciones municipales. «Durante estos cuatro años, pese a tener muchas dificultades, hemos demostrado que tenemos un proyecto político para el pueblo de Villabona, y que también contamos con una oferta política atractiva para los próximos cuatro años», señala Abaigar.

garatu dugun lanaren balorazio sakon bat egiten ari gara. Horretarako, herrian lan egiten duten hainbat eragile eta pertsonen laguntza izaten ari gara. Balantze hori egin ondoren, eragile guztiekin partekatu nahi dugu. Behin balantzea eginda, hurrengo lau urteetan gure udal taldeak garatu beharko lukeen herri programa garatu nahi dugu. Hasiak gaude lan honekin ere. Lan hau egiteko ere, Villabonako eragile eta norbanako desberdinekin harremanetan gaude. Bi dira

«Azken lau urteetan garatu dugun lanaren balorazio sakon bat egiten ari gara orain»

«Ondoren, eragile guztiekin partekatu nahi dugu balantzea egin ahal izateko»

«Herri programa egiteko eragile eta norbanako askorekin gaude harremanetan»

nagusiki zehazten ditugun erronkak. Batetik, krisiari ahalik eta modurik egokienean erantzutea eta krisiaren ondorioak pairatzen ari diren herritarren beharren gaineko azterketa sakon bat egitea. Bestetik, euskal kultura eta euskara sustatzeko jarduera plan nabarmen bat aktibatzea.

Kultur etxearen beharra ere hor dago, beti ere kultur ekoizpena handitzeko balio badu. Euskararen erabilera indartzea berebiziko lehenetsua duen gaia da guretzako. Hezkuntzaren esparrua, hezkuntza ez formalaren esparruan Gaztelekuarekin errealitate egin dugu baina gauza asko dago egiteko. Ludoteka, kasu. Noski beste lehenetsun guztiak albo batera utzi gabe.

Zein tokitan kokatzen du ezker abertzaleak bere burua udalean hurrengo hauteskundeetara begira?

Gure ustetan, Villabonako ezker abertzaleak gaur gaurkoz, udal kudeaketarako alternatiba politiko erreala bat osatzen du. Lau urte hauetan, zailtasunak zailtasun, erakutsi dugu hau. Askoren aldetik, gainera, egurra jaso dugu. Gure konpromisoak ondo bete ditugu. Egitasmo politikoa dugu Villabonako herriarentzat. Uste dut, hurrengo lau urteetarako ere eskaintza politiko erakaragarria aurkezteko gure ahaleginak oso kontuan hartuko dituztela billabonatarrek. Orain ere, ordea, betiko moduan, billabonatarren nahiaren gainetik, Madrileko nahiak daude.

Ezker abertzaleak bere etxeko lanak txintxo egin ditu. Villabonako udalean urte luzez lan egiteko ekipoa eta nahia daukagu. Baina zoritxarrez, euskaldunak arrotz gara gure etxean.

Uneotan, azken lau urte hauetan

Herri zerbitzuak hobetze bidean



Santiago egoitzan eraberritzen lanetan hiru fase aurrekusi zituzten; bigarren faseari amaiera ematen ari dira.



Zenbait tokitan orain autoak baterian jartzen dira.

Bizi kalitatea, segurtasuna eta herria antolatzeko beharra kontutan hartuta hainbat proiektu egiten ari da udala

Hirigintza sailean hainbat hutsune ikusten ziren legealdiaren hasieran. Egungo udala, herriaren onerako izan zitezkeen zenbait proiektutan murgildu da.

Trafiko ordenatzeari dagokionean, ahalegin desberdinak egin dira, zenbait neurri hartuta, herriko antolamendua hobetu eta herritarren kontzientziak indartu nahian.

Joan den maiatzean, udaltzain buru berria izendatu zen, Eusebio Lizarazu, hain zuzen.

Batetik, ordenantzetan aldaketak egin dira. Izan ere, «joan den

Trafikoa ordenatzeko ahalegina egin da, herriko antolamendua hobetuz

Ordenantzetan aldaketak egin ditugu, pasa den abendutik martxan daude

Santiago egoitza berritu dugu; egoiliarren segurtasuna lehenetsi dugu

abenduan trafikoaren ordenantza berriak onartu dira», argitu du udaltzain buruak.

Ordenantza hauen arabera, aldaketa garrantzitsuak izan dira isunen atalean. Garai batean isunen kudeaketa egiteko ez zegoen prozedura administratiborik martxan, orain berriz, prozedura oso bat diseinatu da.

Ordenantza honen arabera, bost egunen buruan ordaintzen badira isunak %90eko deskontua izango dute. Azken finean, udalaren asmoa ez da negozioa egitea, baizik eta herritarrak kontzientziatzea. «Gaizki aparkatzen duenak isun bat dagokiola», alegia.

Aldaketak ibilgailuen antolakuntzan

Trafikoa zuzentze aldera, bestetik, herrian bertan hainbat aldaketa egin dira ibilgailuen antolakuntzan.

Aparkalekuak ahal diren heinean ordenatu egin dira eta hauen kopurua gehitzen ere saiatu dira, lerroan zeudenak baterian jarrita, esaterako. «Auto gehiago sartzea ahalbidetu da», argitu du.

Erdigunean berriz, gune urdina gehitu da; «24 aparkalekutik 40 ingurura iritsi gara». Ordu betez eduki daiteke autoa bertan, doan.

«Honekin, merkataritza indartzeko erraztasunak ipini dira», zehaztu du. Txermin auzoan ere gune urdina ipini da. «Azken batean, 80 bat aparkaleku jarri nahi dira».

Seinaleztapen mailan ere berrikuntzak egin dira, norabide eta zentzuak aldatuta. Lehen fase honetan, Txermin eta Altzin auzoa izan dira gehien moldatu direnak. Bigarren fasean, 2011n, elizatik Tolosa alderako auzoak moldatzen saiatuko dira. «Oinezkoen pasabideak ere gehitu nahi dira. Herri osoa txukundu eta berarrantolatu nahi dugu datorren urtea amaitzerako», dio Lizarazuk.

Santiago egoitza

Adinduen egoitzan ere zenbait hutsune ikusten ziren herriaren azterketa egitean. Zaharren egoitzak, eraikinaren eraberritzea beharrezkoa zuela onartu zen. Hori aurrera eramateko Foru Aldundira proiektua aurkeztu eta aurrekontuaren %75 bere gain hartu ondoren, eraberritze lanei ekin zieten. Lanek, hiru fase desberdin izango dituzte, momentu honetan bigarren faseari amaiera ematen ari direlarik.

Egoiliarren segurtasuna izan dute ardatz hasieratik Villabona Udalekoek, horixe bera izan baitzen lanak egiteko arrazoi nagusia. Santiago Egoitzako lanak hainbat hilabeteren buruan amaituta izatea aurreikusten da. Behin guztia amaitzen denean, egoiliarrek zazpi gela gehiago izango dituzte bertako zerbitzu egokiago bat jaso ahal izateko.

Horrez gain, igogailua ere jarri dute langileek adinduen gora behar modu erosoago batean egin ditzaten. Irigarritasun arazoak konponbidea eman nahi izan zaie.

Aurrera begirako erronkei erreparatzen hasita, proiektu desberdinak daude egiteko, baina betiere aurrekontuen arabera egingo dira. «Gure ametsa kultur etxe eder bat egitea izango litzateke», herriko alkatearen arabera. Horrez gain, «ezinduek kalean eroso ibili ahal izateko dituzten arrisku eta ezintasunei konponbidea aurkitu nahi diegu, biztanle guztiek baitute eskubidea kalean arazorik gabe ibiltzeko».

Koskak kendu eta maldak jarrita, irigarritasun hobe izatea lortuko litzateke. Hurrengo erronkak beraz, diru-zorroaren araberakoak izango dira.

Trabajando para mejorar los servicios

→ Durante los últimos meses se han llevado a cabo diferentes actuaciones en cuanto a urbanismo. Desde mayo Villabona cuenta con un jefe de los municipales, Eusebio Lizarazu. También se han hecho cambios en las ordenanzas en cuanto a las multas. A partir de ahora sólo quedarán en manos del ayuntamiento las multas leves; «se plantea que éstas sean multas de 100 euros, pero si se pagan antes de 20 días tendrán un descuento del 50%», aclara Lizarazu.

También han ordenado los aparcamientos, de manera que para que haya más hay zonas donde en vez de aparcar el línea ahora se debe aparcar en batería. Asimismo, en la zona centro de la localidad han puesto zona azul.

En cuanto a la residencia de ancianos ésta está siendo rehabilitada. La obras están divididas en tres fases. En estos momentos trabajan en la segunda fase.

Inbertsioak herritarren beharretara

Herritarren kaleko bizitza indartzea, kultur eragileentzat erakuslehioa zaharberriua: aljibea, adinduentzako aisialdi eremua eta autoen auzia konpontzea izan dira legealdiko inbertsioak

Billabonatarrek zerbitzu eroso, egoki eta eskuragarriak izatea izan da azken urteotarako udalak hartu zuen erronka.

Kaleko bizitza hobetzeaz gain, herriko sormena indartu nahi izan dute eta horretara bideratu dituzte azken aurrekontuak.

Erriberako pasealeku berria

Duela gutxira arte Erribera alde, hau da ibaiaren atzealdea, alde batera utzita izan dute herri-tarrek.

Ibaian egin dituzten berrikuntzen harira, aurreko legealdian martxan jarritako Izartu programari helduta, inguru hau berri-tzeari ekin zioten. «Zizurkilgo pasealeku guztia ere berri-tu ostean, desitxuratu geratzen zen Villabonako alderdi hori», argitu du Aitziber Cenzano alkatearen idazkariak.

Apatx aldetik Zubimuxura bitarte egin dituzte berrikuntzak, hau da, «bi zubien arteko lotura da berri-tu dena». Lanak amaituta daude eta herritarrek gustura hartu dute egindako berri-tzea. «Txukun geratu da azkenean, jendearentzat toki egokia geratu da. Gainera, ongi hornituta dago eserleku eta aterpetxoarekin eta herritar asko ibiltzen da jada paseoan», gaineratu du.

Otsailean Erriberako paseale-

kua izotzaren ondorioz sortutako eragozpenak konpontzeko itxita egon da, ondorioz herritarrek inolako arazorik gabe erabili dezakete pasealekua.

Aljibea erakuslehio

Salbadorako lanak egin zituztenean, ur-tanga bat agertu zen. Udalak, eraberritzeko hautua egin ostean, kultur eragile desberdinentzat egokitutako erakusketa gela bihurtu dute.

Sarrerak, metro baten barrura goazela irudikatzen badu ere, erakusketa desberdinak egiteko gela eder batera eramaten zaitu. Lehengo estruktura mantenduta, orduko arkuekin, berezko harriarekin mantentzea erabaki zuen udalak. «Jendea erabilpen handia ematen hasi da», Aitziber Cenzanoren hitzetan.

Orain arte, herriko kultur eragile desberdinek ipini izan dituzte erakusketak. «Herritarrek lehen ere izan dute erakusketa toki bat baina gela handia eta hotza zen. Oraingoa berriz, txiki-goa baina goxo-goa eta xarma gehiago duena da», argitu du. Martxoak 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunari begira Hutsuneak Betez emakume taldeak erakusketa antolatu du.

Giza probetarako ere arrasterako harria agertu zen inguru honetan. Animaliekin frogak egiteko erabiliko ez bada ere, ber-



Erriberako pasealeku berriaren irudia.

tan uztea pentsatu zuten gizon-probak egin ahal izateko.

Alde Zaharra eraberritu nahian

Alde Zaharra oinezkoena izatea azken urteotako erronketako bat da Villabonako Udalean. Lorpen hori izateko ordea, pixkanakako egokitzeak eginen ari dira.

Goizetan esaterako, autoek bertan ibiltzeko aukera dute, baina arratsaldeetan eta asteburuetan oinezkoentzako gune bihurtzen da. Merkataritza aloz-rri zailtasunik ez jartzea izan

da erabakia hartzeko arrazoieta-kobato.

Alde Zaharra, herriko gunerik zaharrena da Villabonan. Urteen poderioz, etxebizitzak zahartzen joan dira egungo egoera kaskarrera heldu arte.

Etxebizitza huts gehien dituen gunea bihurtu da herrian. Udalaren helburua da «zaharberritze lanak egitea, egoera hau konpondu nahian». Egoera ekonomikoak laguntzen ez badu ere, pixkanaka lan horretan hasi nahiko lukete udalean.

Berdegunek gehituz

Etxeondoko hariztia gune maitatua dute billabonatarrek. Herri gunean dagoen inguru berdeena esan daiteke. Autoen arazoa konpontzeko aldera ordea, aparkalekuak eraiki ziren lurpean. «Egia esan, txukun, prezio onean eta egoki geratu dira aparkalekuak», Aitziber Cenzanoren arabera. Orain arteko paisaiaren hausturirik ez izatea nahi zuten bizilagunek eta baita udalak ere. Arazo honi konponbidea emate aldera eta inguruari ahalik eta kalte txikiena eraginez, aparkalekuaren gainean, Etxeondoko hariztiaren jarraipen gisa, berdegunea egingo dute.

Aparkalekuaren auzia

Nahiz eta aparkaleku gehiago egin, betiko arazoa izaten da herrietan autoena. Villabonan ere arazo berberarekin egin izan dute topo udalean. Aurten udaltzain buru berria etorrita, «ideia berriak izan ditu eta arazoari buelta ematen hasi gara».

Herriaren antolamendua zuzentzeaz gain ordea, udalak hainbat garaje egin ditu herrian zehar. Bi garaje sail eraiki dira. Lehen saila Larrea auzunean kokatua eta bigarrena, Malkar plazan.

Larreen kokatutakoak itxiak dira eta Malkar plazan daudenak marradunak dira.

Jubilatuak lokal berria

Aurreko legealdian, EAJ adostasun batera iritsi zen jubilatuekin. Salbadorako lanak amaitu ostean, bertako bi lokaletako bat beraientzat izango zela, baina, tabernarik ez jartzeko baldintzarekin.

Egungo udala osatzean, adinekoekin harremanetan jarri ziren, euren beharrak gertutik ezagutzeko. Hiru urtetan zehar lanean aritu ondoren, bi aukera ikusten ziren posible. Lehena, orain arteko Txermingo lokalean geratzea, baina alboko lokala erosi eta egin beharreko lanak eginda, 80 metro irabaziaz. Bigarrena, Salbadorako lokal berrira joatea zen.

Espainiar Estatutik diru laguntza bat etorri zen, bi aukera proposatuaz. Batetik, lehengo eraikinean geratuta, guztia berritzeko lanak eginda, beste bost proiektu eraman ahal izango zituen udalak.

Bestetik, diru partida guztian lokal berrira zuzentzea zen. Bigarrenaren aldeko apustua egin zuten adinekoek. Momentu honetan, lanak amaitu dira eta Villabonako adinekoek tabernadun lokal berria dute Salbadora inguruan.



Aljibearen erakusketa desberdinak izan dira, azkena Oinkari dantza taldearena izan da.

Inversiones dirigidas a cubrir las necesidades de los billabonataras

➔ En cuanto a las inversiones que ha llevado a cabo el consistorio en los últimos meses hay que mencionar que el punto de partida siempre ha sido «mejorar la calidad de vida de los ciudadanos». Por una parte, han renovado el paseo de Erribera. Para ello han mejorado la zona que va desde Apatxe a Zubimuxu. Por otra parte, renovaron el viejo depósito de agua la casa Subijana haciendo del aljibe una sala de exposiciones.

Otra de las actuaciones ha sido la de convertir la parte vieja en peatonal. Lo están haciendo poco a poco; de manera que en estos momentos durante las tardes y los fines de semana no se puede circular en coche por el centro.



Herrian euskararen erabilera bultzatzeko ari da lanean udala.

Euskara eta heziketa euskalduna indartzearen aldeko apustuak

Herriko ikerketa toponimikoa lantzen ari dira; horrez gain ahalik eta zerbitzu gehien eskaintzen ari dira euskaraz

Euskara eta Hezkuntza sailaren nondik norakoak Josean Cuberok eman ditu

Euskara eta Hezkuntza Sailean, udalerriko toponimia elementuak biltzea, normalizatzea eta arautzea helburu duen ikerketa toponimikoa lantzea izan da Villabonako Udalak, beste hainbat lanen artean izan duen egitekoe-tako bat. «Lehendik bagenuen herriko mapa toponimiko bat egina, baina berrikuntzak eta egokitza-penak egitea beharrezkoa zuen», Josean Cubero, Euskara eta Hezkuntza Batzordeko teknikaria- ren arabera.

Fase desberdinak

Ikerketa aurrera eramateko, hainbat fase landu dituzte.

«Batetik, idatzizko dokumentuak aztertu dira, dokumentu zahar- rarekin lan eginaz. Momentu

honetan, ahozko bilketarekin ari gara lanean», argitu du. Bilketa hauek amaitzean, erakusketa bat jarriko dute, otsailean segurue- nik. «Bertan, herritarrei ikerketa honen emaitzak aurkeztuko zaiz- kie eta alegazioak jartzeko epeari ekingo zaio», dio.

Mapa toponimiko berria ezagu- tarazi eta aurreko mapatik zertan aldatu den aurkeztuko da. «Iker- ketaren metodologia azaltzeaz gain, aldaketan zergatiak azal- tzen saiatuko gara», Cuberok ar- gitu duenez.

Ahozko dokumentu bilketari dagokionean, herritarrek izan dira lan hau egiteko informazioa eskaini dutenak. «Bai mendi eta baserri inguruetako datu bilketa egiteko garaian eta baita oraintxe bertan lantzen ari diren kaleko

eremuetan ere herritarra izan da protagonista nagusia».

Ikerketa aurrera eramateko, Euskaltzaindiako Onomastika Batzordeak laguntza teknikoa eskaini zuen. «Pare bat bilera egin genituen arlo teknikoaren nondik norakoak zehaztu eta geni-

Ahozko dokumentu bilketa egiteko herritarren laguntza izan dute

tuen zenbait zalantza argitzeko» arduradunaren hitzetan.

Herritarren ezagutzan sakondu eta hori zabaltea

Legealdiaren hasieratik, herria- ren ezagutzan sakondu eta ezagu- tza hori zabaltea izan du helburu udal korporazioak.

Ikerketa toponimikoa, ezagu- tza zabalteko egitasmo horren zati bat izango delarik. «Finan- tziarioak lortzeko egoera ekono- miko onenean ez bagaude ere, ahozko dokumentuen bilketan lagundu dezaketen pertsona eta le- kuko asko zahartzen ari dira eta

herriko historiaren atal hori gal- du baino lehen, altxor hauek ber- reskuratzea garrantzitsua dela deritzogu», Cubero teknikaria- ren arabera.

«Toponimo zaharrak gorde- tzea gure memoriaren parte da», gaineratu du.

Erakusketa

Martxoan beraz, herritarrek era- kusketan ikusi ahal izango dute ikerketa toponimikoa.

Maiatza baino lehen berriz, bu- katutzat emango dituzte lanak eta guztien eskuragarri jarriko du udalak herriko mapa toponi- miko berria.

Euskara eta Hezkuntza saileko aurrera begirako erronkei buruz galdetuta, Josean Cuberok hona- koa adierazi du: «Udalean euska- ra erabiltzeko irizpideak martxan jarri ziren lehengo urtean. Irizpi- de horiek aurrera eramateko la- nean jarraituko dugu. Herrita- rrek udalarekin dituzten harre- manetan euskaraz hitz egiteko ahalik eta arazo gutxien izatea da gure erronketako bat. Horretan, ahalik eta eraginkorren izatea izango da gure helburua».

Apuesta firme por el euskara y por una educación euskaldun

→ Josean Cubero es técnico de la Comisión de Euskara del ayuntamiento. Según ha relatado, una de las tareas que han desarrollado ha sido reunir los elementos toponímicos de Villabona, así como realizar una investigación toponímica de cara a normalizar y reglamentar el uso del euskara.

Para poder realizar el estudio han contado con la ayuda de los billabonataras, ya que es así como han reunido la documentación oral.

Los vecinos de la localidad podrán ver todo esto en una exposición que se podrá visitar durante el mes de marzo.

Cubero explica que durante los próximos meses seguirán trabajando para que el uso del euskara en el ayuntamiento no sea un problema. «Nuestro objetivo es ser lo más eficientes posible en este tema», explica Cubero.

Euskal idazleak ikastetxeetan bisitan

Euskal Idazleen Elkartearekin elkarlanean martxan jartzen den egitasmoaren bidez, euskal idazle ugari etortzen dira Villabonako ikastetxeetara euren proiektuen berri eman eta ikasleei irakurzaletasuna indartu asmoz.

Idazleen Elkarteko egoera eko-

nomikoaren gora beherak medio izango dituzten aldaketak direla eta, aurtengo idazleak zehazteke daude baina martxan da programa.

«Erantzunaren zain aurkitzen gara momentu honetan», Cuberok dioenez.



Iñaki Zubeldia idazlea martxoan izan zen Fleming ikastetxean.

Udan jolasean egitasmoak gaztetxo gehienak bilduz

Programa oso arrakastatsua da *Udan jolasean* izeneko egitasmoa. Zerbitzua uztailean zehar eskaintzen dute eta bertan 2000 eta 2007 urteen artean jaiotako haurrek hartzen dute parte. «Ge-

roz eta haur gehiago animatzen da eta egia esan, aurrekontuaren zati handi bat horretara zuzentzen da», Cuberoren arabera. Aurten ere egitasmoak balorazio positiboa izan du.

Guraso berrientzako sentsibilizazio «arrakastatsua»

Urte askotatik datorren egitasmoa da sentsibilizazio egitasmo hau. «Lehen umea izan duten gurasoengana hurbiltzen gara, lehen kontaktua egitera», Cuberoren hitzetan. Gurasoei triptikoko bat helarazten diete, hizkuntza-

ren gaia tratatzeko moduari buruz hitz egiten duena, eta horrez gain, oparitxo bat egiten zaie familia berriei.

Euskararekiko gertutasuna eskaintzen dute udalean, haur bat jaiotzen denetik.

Errenta aitorpena euskaraz

Tolosaldeako Euskara Zerbitzuen artean errenta aitorpena euskaraz egin ahal izateko kanpaina jarri zuten martxan. Villabonako Udala ere, egitasmo horren baitan dago. Herritarrek lagundu eta animatzea izan da lanetako bat.

Bestetik, errenta aitorpenak egiten lan egiten duten bitarteka-

riekin ere lan egin da. Aurrezki kutxa, banku eta gestoretan ere egitasmoaren berri eman eta euskaraz egin ahal izateko bidea erraztu dezaten. «Oraindik ez da daturik iritsi, baina egitasmoa positiboa izan dela esan daiteke», diote udaleko arduradunek. Erantzun zehatzak, datorren urterako izango dira.

Mintzalaguna, ikasleen zutarri

Lau urte daramatza lanean Villabona eta Zizurkilan artean martxan jarritako Mintzalaguna programak. «Programa arrakastatsua ari da suertatzen, oso gustura gaude boluntarioen eta euskara ikasleen arteko lanketa horrekin», argitu du Josean Cubero teknikariak. «Eskertzekoa da boluntarioen laguntza. Aurtengo urtean, 30 lagun inguru ari dira lan horretan. Bi edo hiru laguneko taldeak osatzen dira mintza praktikarako. Boluntario bat eta ikasle bat edo pare bateko taldeak izaten dira ohikoan. Emaizta onak jasotzen ari dira

aurtengo urteari erreparatuta. Euskara irakasleen arabera, programa honi esker, ikasleak askoz erraztasun gehiagorekin askatzen dira eta konfiantza gehiagorekin egiten dute euskaraz, beraz, aberasgarria da Mintzalaguna programa», gaineratu du.

«Mintzalaguna gisa laguntza eskaintzeko prest dagoen edonor animatu dadila esango nuke, Villabona edo Zizurkilgo Euskara Zerbitzura jo besterik ez du izango. Nahiz eta talde polita osatuta izan, inoiz ez da gaizki etortzen laguntza gehiago izatea», dio Cuberok.

Webguneak indartzeko laguntzak

Webgunea euskaraz sortu duen talde edo norbanakoari diru laguntza ematen dizkio udalak. Webgune batetik bestera, modaltate desberdinak aurki daitezke, horien arabera laguntzak eskaintzen direlarik.

Hizkuntzaren trataerari erreparatzen zaio, euskara hutsezkoa, elebitan, lehen hitza euskaraz ateratzen den... aukera des-

berdinak daude. Aurtengo urteari dagokionean, abenduan kale-ratuko zituen laguntzak jasotzeko oinarriak udalak.

Aipatu beharrekoa da, diru laguntzak ez direla webguneak sortzeko ematen, behin sortu ondoren egin behar izaten dela eskara. Izan ere, euskarari zer nolako trataera ematen zaion aztertzen da udaletik.

Euskarazko filmen eskaintza zabalduz

Zinemako eskaintzan ere, euskara indartzea dute helburu Villabonako Udalean. Tinko Elkartearekin elkarlanean ematen da aurrera programa hau. Euskarazko film batzuk jartzen dira ikasleen eskura. Datorren urteko egitarauari dagokionean, Haur Hezkuntzako lau eta bost urte bitarteko haurrentzat, *Txoritxoak* filma eskainiko da martxoaren 28an.

Lehen Hezkuntzako lehen, bigarren eta hirugarren mailako ikasleei zuzenduta berriz, *Ponyo* filma eskainiko dute datorren martxoaren lehen. Lehen Hezkuntzako laugarren, bosgarren eta seigarren mailako ikasleek berriz, *Malabar Printzesa* filmaz gozatzeko aukera izan dute jada. DBHko ikasleen eskaintzaz berriz, Gizarte Zerbitzuetako arduratzen dira.

Proyectos, ayudas económicas, planes de futuro... todo de cara a impulsar el uso del euskara

➔ No son pocas las actuaciones y proyectos desarrollados por el ayuntamiento de cara a fomentar el uso del euskara.

Gracias a un convenio firmado con Euskal Idazleen Elkartea los diferentes centros educativos de Villabona han contado con la visita de escritores euskaldunes durante el pasado año. Este año todavía no saben cómo van a desarrollar el proyecto, pero seguirán con él.

El proyecto *Udan jolasean* (*Jugando en verano*) se desarrolla durante julio y reúne a jóvenes nacidos entre los años 2000 y 2007. «Cada vez son más los jóvenes que se animan a participar en él», señala Josean Cubero.

Otra de las apuestas del ayuntamiento ha sido acercar el euskara también a los recién nacidos, o a sus padres, en este caso. Para ello hacen llegar un tríplico donde se les explica cómo trata el tema de la lengua. También se les hace un pequeño regalo», aclara.

También este pasado año han hecho una apuesta por pedir a la ciudadanía que hagan la declaración de la renta en euskara, dando información para ello. «Todavía no hemos recibido los datos de la última campaña, pero se puede decir que ha sido positivo», explica Cubero.

También hace cuatro años ya que desarrollan Mintzalaguna. Este programa cada vez es más aceptado y cuentan además, con cada vez más personas interesadas en ayudar.

Asimismo, ofrecen ayudas económicas para quienes tengan la página web en euskara. Para poder dar la ayuda tienen en cuenta diferentes factores: si todo está en euskara o por el contrario cuenta con más idiomas, si le dan prioridad al euskara... Las ayudas no se dan, sin embargo, para hacer la página, sino que primero se valoran cómo son y cómo funcionan, y es después cuando se decide si dan o no la ayuda.

Para terminar el ayuntamiento pretende ofrecer cada vez más películas en euskara. Para poder desarrollar este programa cuentan con la ayuda de la asociación Tinko. Para este año tienen programadas ya dos películas: *Ponyo* 1 de marzo) y *Txoritxoak* (28 de marzo),

Gazteen beharretarako topaleku berria

Gazteek aisialdirako eta euren beharrek asetu ahal izateko erakin berria irekitzar dute udaleko arduradunek



Etiko sursimio eskolaren egin du Gazteleku.

Udalek, gazteentzako eremu aktibo bat behar bezar jabetuta, ezin berri aurrerok erakina egoteki du. 12 urteko 17 urterako bitarteko gazte gurtintzako egoetako, egiteko eta ekiteko tokia izango da Gazteleku.

Ongi pasatu eta ekitaldi desberdinak ateratzeaz gain, herria begira ere ekarpenak egiteko gure izan liteke. «Buren zaleak» izan, edonork hartzeko aukerarik. Menaren arabera.

WIFI gunea ere izango dute gela horiek. «Buren zaleak» izango dira, edonork hartzeko aukerarik. Menaren arabera.

Euskaltegiako baliagarri
Euskaltegiak ere, momentu honetan da eremu zahatzi, musika eskolan aritzen baitira klaseak ematen. Taldetara eratu, baliagarri izan liteke. «Askotaroko ematea nahiko gumea, betiere, gurtien artean adostutako eredu, arari eta baldintzen arabera. Hala ere, beraren ordeztagi gazte izango dute libentian» aritu da. Aurrera begira, gazteria sallean, diru laguntzak eskaintza izango da lanetako bat. 2010ean gauzatu ezin izan diren diru laguntzak, hain zuzen. Gazte taldea, proiektu desberdinak aurrera ateratu ahal izateko lagun.

Un centro participativo...

Para el Ayuntamiento de Villabona los jóvenes de necesitan un lugar para poder desarrollar sus habilidades y es por ello que ha rehabilitado el edificio que está en frente de la iglesia. Se trata del Gazteleku un lugar con estas características según Beatriz Mená: «El centro es participativo y solidario. Es un lugar abierto y queremos que sea activo».

El Gazteleku cuenta con tres pizcas. La planta baja será el lugar de los adolescentes. Estos también contarán con un espacio en primera planta. En el primer piso también estará la Oficina de la Información Juvenil y las oficinas de la empresa que se va a ocupar de los educadores. Mañdi. El Gazteleku también tendrá con un gran espacio para las proyecciones, reuniones, ruedas de prensa...

También habrá otras dos estancias más pequeñas para otro tipo de actividades. Para terminar el Gazteleku contará con WiFi.

Herriarteko Begira

- **Martxoak 18, 13:00** Oetan Gazteleku Katea Etxean inaugurazio ekitaldia.
- **Martxoak 19**, Aste irekien jardunaldia 11:00 Oetatik 14:00 Oetara. Herriarteko gaztelekuaren inguruan sortzen den informazio eta ekimen orok jasotzeko eta herriarteko erabakien zuzenduta, arari digital haur prestatu du udalak.

«El Gazteleku servirá para reconducir a los jóvenes a otras entidades»

«El Gazteleku servirá para reconducir a los jóvenes a otras entidades»
«Los adolescentes van a encontrar otras maneras de entender el mundo»
«Solo los padres no pueden aportar todo lo que necesitan los jóvenes»

«Solo los padres no pueden aportar todo lo que necesitan los jóvenes»
«Solo los padres no pueden aportar todo lo que necesitan los jóvenes»

«Solo los padres no pueden aportar todo lo que necesitan los jóvenes»
«Solo los padres no pueden aportar todo lo que necesitan los jóvenes»

«Solo los padres no pueden aportar todo lo que necesitan los jóvenes»
«Solo los padres no pueden aportar todo lo que necesitan los jóvenes»

Guneak

- **Behoko solairua.** Neraebesteko gunea.
- **Lehen pisua.** Egokitutako gunea bat egongo da eta baita Gazte Informazio Bulegoa eta Mañdi Ekarateko hezitzaileen Bulegoa ere.
- **Azken solairua.** Baloizaintzako gela handi bat egongo da eta baita neurri txikiagoa beste bi gela ere talde lanak egiteko.
- **Erakink gurtian.** Wifia egongo da.

Jaume Funes

Especialista en el mundo de los adolescentes desde la década de los 70

Funes es especialista en el mundo adolescente. Psicólogo, educador, escritor, periodista... cuenta con una larga y extensa trayectoria en estas ocasiones, difícil y complicado mundo.

«El Gazteleku servirá para reconducir a los jóvenes a otras entidades»
«Los adolescentes van a encontrar otras maneras de entender el mundo»
«Solo los padres no pueden aportar todo lo que necesitan los jóvenes»

«Solo los padres no pueden aportar todo lo que necesitan los jóvenes»
«Solo los padres no pueden aportar todo lo que necesitan los jóvenes»

«Solo los padres no pueden aportar todo lo que necesitan los jóvenes»
«Solo los padres no pueden aportar todo lo que necesitan los jóvenes»

«Solo los padres no pueden aportar todo lo que necesitan los jóvenes»
«Solo los padres no pueden aportar todo lo que necesitan los jóvenes»

«Solo los padres no pueden aportar todo lo que necesitan los jóvenes»
«Solo los padres no pueden aportar todo lo que necesitan los jóvenes»

«El Gazteleku facilita la capacidad de decisión de los adolescentes»

«El Gazteleku facilita la capacidad de decisión de los adolescentes»
«El Gazteleku facilita la capacidad de decisión de los adolescentes»

«El Gazteleku facilita la capacidad de decisión de los adolescentes»
«El Gazteleku facilita la capacidad de decisión de los adolescentes»

«El Gazteleku facilita la capacidad de decisión de los adolescentes»
«El Gazteleku facilita la capacidad de decisión de los adolescentes»

«El Gazteleku facilita la capacidad de decisión de los adolescentes»
«El Gazteleku facilita la capacidad de decisión de los adolescentes»

«El Gazteleku facilita la capacidad de decisión de los adolescentes»
«El Gazteleku facilita la capacidad de decisión de los adolescentes»

«La adolescencia por definición es la etapa de los descubrimientos»

«La adolescencia por definición es la etapa de los descubrimientos»
«La adolescencia por definición es la etapa de los descubrimientos»

«La adolescencia por definición es la etapa de los descubrimientos»
«La adolescencia por definición es la etapa de los descubrimientos»

«La adolescencia por definición es la etapa de los descubrimientos»
«La adolescencia por definición es la etapa de los descubrimientos»

«La adolescencia por definición es la etapa de los descubrimientos»
«La adolescencia por definición es la etapa de los descubrimientos»

«La adolescencia por definición es la etapa de los descubrimientos»
«La adolescencia por definición es la etapa de los descubrimientos»



Pues sí, pero esto no es ningún mal. Es decir, cuando hablamos antes de cómo se hizo este documento, una buena parte se hizo consultando a los propios chicos y chicas de algunos Gaztelekus de Gipuzkoa. Está claro que la pieza que más valoran en él es el sofá, ¿y por qué? Pues, como pasa en casa, todo padre o madre sabe muy bien que en una casa se nota que hay un adolescente porque hay una parte del sofá que está más hundida que las otras. Pero eso un poco tiene que ver, primeramente, con su historia hormonal, que no pueden con su vida. Luego otros, que ven con ese ritmo en la vejez van, de decir «no me agobies». Va a servir para que se apalanquen y a ratos se apalanquen y a ratos les estimulen. Los educadores que van a haber ese espacio tienen unos criterios muy claros. Por un lado, hay que dejarlos solos, no hay que ir a verlos. Digamos que van a estar apalancados con un cierto grado de inco-

«El Gazteleku facilita la capacidad de decisión de los adolescentes»
«El Gazteleku facilita la capacidad de decisión de los adolescentes»

«El Gazteleku facilita la capacidad de decisión de los adolescentes»
«El Gazteleku facilita la capacidad de decisión de los adolescentes»

«El Gazteleku facilita la capacidad de decisión de los adolescentes»
«El Gazteleku facilita la capacidad de decisión de los adolescentes»

«El Gazteleku facilita la capacidad de decisión de los adolescentes»
«El Gazteleku facilita la capacidad de decisión de los adolescentes»

«El Gazteleku facilita la capacidad de decisión de los adolescentes»
«El Gazteleku facilita la capacidad de decisión de los adolescentes»

«El Gazteleku facilita la capacidad de decisión de los adolescentes»
«El Gazteleku facilita la capacidad de decisión de los adolescentes»

«El Gazteleku facilita la capacidad de decisión de los adolescentes»
«El Gazteleku facilita la capacidad de decisión de los adolescentes»

«El Gazteleku facilita la capacidad de decisión de los adolescentes»
«El Gazteleku facilita la capacidad de decisión de los adolescentes»

«El Gazteleku facilita la capacidad de decisión de los adolescentes»
«El Gazteleku facilita la capacidad de decisión de los adolescentes»

Inoizko bazkiderik gehien Olaederra kiroldegian

Kirol eskaintza zabalda dago herrian; aurten 3.400 bazkide izatera ere iritsi da kiroldegia

Kirolari dagokionez urtero eskaintza zabala eskaintzen dute herrian horrela herritarren bizitza osasuntsua bermatu ahal izateko. Villabonako Udalak erritmo eta klase guztietako ikastaroak eskaintzen ditu urte osoan zehar.

Urteko jarraipena egiteaz gain, beste hainbat proiektu aurrera ateratzen aritzen da Beatriz Mena teknikaria kiroldegi aurrean orain arte izan duen bulegoan (Gaztelekua zabaldu ondoren, bertan ariko da). Dagoen eskaintza errepertutara, Villabona herri kirolaria dela esan daiteke. «Martxoaren bigarren aste bukaeran, 12 eta 21 urteko arteko gazteekin, eskiatzera joaten gara. *Snow board* eta alpino modalitateak praktikatzeko ditugu», dio Beatriz Mena teknikariak.

Uda Kirola programa

Ondoren Uda Kirola programa indartsua ere eskaini zuten.

Ekainaren azken astetik, uztailaren azken astera bitarte iraun zuen programa honek.

Urtero egiten den eran, aurten ere deialdia egin eta parte-hartze handia izan zuen. Urtean zehar praktikatzeko ez diren kirolak egiteko aukera ematen du programa honek. «Aurtengo programa prestatzeko, herriko ikastetxeetara joan eta galdeketa egin genuen», gogoratzen du Menak.

Golfean, zaldi ibilaldiak, piraguismoa, *surf*-a eta *body board*-a praktikatu zituzten gazteek. «Gazteak kirolerako zaletasuna hartzeko baliagarria izaten da eta ongi pasatzen dute gainera», Menak argitu bezala. Txirringarritza sustatzeko ere, hainbat lasterketa egiten lagundu dute, diru laguntzen bitartez. Pilota alorrean, Emakumea Pilotari taldea ere sortu zen azaroan.

Kiroldegia jarraripena

Bestetik, kiroldegia jarraripena egiten aritu dira urtean zehar.

Helburuak betetzen ari diren edo ez aztertzeko, Kirolzer enpresarekin harreman jarraia du udalak, bazkideen berri izateko. «3.400 bazkide ditugu, horietatik 2.000 inguru dira Villabonakoak,

700 inguru Zizurkilgoak eta gaitzakoak, inguruko herrietako bazkideak dira. Inoizko kopururik handienak ditugu momentu honetan», dio teknikariak.

Umeen igeriketa, cikling-a...

Menak dioenez zenbait jarduerak arrakasta handia ari dira izaten. Esate baterako, umeen igeriketa kanpaina dagoenean «erabilera handia» izaten du kiroldegiak eta bestetik, *cikling*-ak ere arrakasta handia du. Gurasoekin egiten den haurtzako igeriketa ere aipatu du kirol teknikariak.

Honez gain, Urko Arin koordinatzaileak Eskola Kirola proiektua darama.

Udala batzordeko partaidea da, beste hainbat taldeekin batera. Kirol aniztasuna eta talde giroa indartzea helburu duen programa bat da Eskola Kirola. «Bizi osasuntsu bat egitearen garrantziaz jabetzea nahi dugu gazteak», Menaren arabera. Diru laguntza ekonomikoak ere eskaintzen dira sail honetatik. Krisiaren eragina medio, iazko aurrekontua mantendu egin zen eta aurtengoa ere bide bertsuan izango da.

Taldeak

Era berean, Menak sortu diren talde berriak ere aipatu nahi izan ditu. Horiek horrela, Olaederra Fight Kluba sortu dela nabarmendu du.

Duela bi urtetatik dago herrian boxeoko taldea, arraun taldetxo bat ere aritzen da entrenatzen eta noski futbol eta saskibalo taldeak daude. *Kapoeira* ere egiten dute. Kirol enpresak egiten duen eskaintzaz gain hala ere, badago herritarren elkarteek egiten dutena. «Klubak sustatzeko, beharrezkoa izaten dute diru laguntza eta horretan joaten da aurrekontuaren gehiengoa», argitu du Menak. Aurrera begirako proiektuei dagokionez, nahiz eta aurrekontu handia izango duen, belar artifiziala jartzeko asmoa dute. Kostu handia du ordea. «Laguntzak lortzeko ate joka hasita gara», dio teknikariak.

Aldundiarekin eta Zizurkilekin hizketan hasita dira, guztien artean negoziazio batera iritsi eta futbol zelaiaren kalitatea hobetu eta erabilgarriago bihurtzeko. Horrelako proiektuek gain, orain arteko eskaintzak mantendu eta behar berrietara egokitzen saiatuko da Villabonako Udala datoren urtean ere.



Futbol zelaiaren belar artifiziala jarriko dute. Beheko irudian Olaederrako jardueretako bat ikusi daiteke.

Cada vez hay más socios en el polideportivo Olaederra

➔ Villabona cuenta con una amplia oferta deportiva. Según la técnico Beatriz Mena cuentan además, con cada vez más participantes. Entre esa oferta destaca la salida que suelen organizar en marzo para ir a esquiar donde los jóvenes pueden practicar *snow board* esquí alpino. También aclara que el programa Uda Kirola aúna cada vez a más gente, ya que gracias a él se pueden practicar deportes que no se ofrecen durante el resto del año: golf, hípica, surf, piraguismo y *body board*. Asimismo suelen organizar diferentes carreras de ciclismo para impulsar también este deporte.

Mena señala también que en polideportivo Olaederra cuentan con cada vez más socios. «Tenemos 3.400 socios, de estos unos 2.000 son de Villabona, y el resto, unos 700, son de Zizurkil y de otros pueblos de alrededor. En estos momentos contamos con más socios que nunca», explica.

En cuanto a la oferta de Olaederra una de las actividades más exitosa es la de natación para niños y niñas y también las clases de *cikling*. También destaca el proyecto Eskola Kirola coordinado por Urko Arin. Para terminar y hablando ya de los planes de futuro Mena aclara que pretenden poner hierba artificial en el campo de fútbol, «ya hemos empezado a tocar puertas para conseguir la financiación», señala.

Santio jaietako balorazioa egin du Izagirre Kultura saileko zinegotziak

Santioetan jaia eta omenaldia kalera atera ziren beste behin.

Villabonako herritarrek hainbat ekitaldiz gozatu eta parte hartzeko aukera izan dute aurten ere, uztailaren 24tik 31ra bitartean. Santio jaiak, indar handia izaten dute Villabonan eta eskualde osoan zehar.

Azken jaiak dagokionean, «jendearen parte-hartzea ikaragarria izan zen, udala oso gustura gertatu zen alde horretatik», argitu du Hautsi Izagirre Kultura zinegotziak. Eresargi abesbatzak eman zion hasiera aurtengo jaiak, txupinazoarekin. Ondoren, Onddo Gazte Asanbladaren eskutik, Anoetako gazteen aurka aritu ziren bateletan, lehenengo aldiz. «Giro ederra sortu zen, bazkari herrikoari giroa jartzeko aldera. Bazkari herrikoian 450 pertonek hartu zuten parte. 2009ko jaietatik, kopurua bikoiztea lortu zen», gogoratzen du Izagirrek. Lehenengo eguneko arratsaldea pilota, frontenis eta futbolari eskaini zioten billabonatarrek.

Gauean berriz, danborrada arrakastatsua izan zuten herriko kaleetan zehar eta omenaldi beroa jaso zuen danborradaren sustatzaile izan zen Remi Ayestaranek. Danborradan ere, 180 herritarrek hartu zuten parte. Herria danbor burrunba handi batez hartu zuten.

Santio Eguna

Uztailaren 25eko igandean berriz, goizean goizetik festa giroa nagusitu zen, Santio Egunean.

Dianaren ostean, sokamuturra eta XXXX. Herri Krosa izan ziren Zurbeltz elkartearen eskutik. Eguerdiko aldera berriz, udal korporazioak Santiago Egoitzara bisita egin zuten, urtero legez. Etxeko txikiak jolasekin gozatzeko aukera izan zuten bitartean, euskal jai eguna ospatu zen egun osoan: joaldunak, sokadantza, afaria, erromeria... izan ziren. «Euskal jaiak ere arrakasta handia izan zuten. Oinkari dantza taldea izan zen antolatzaile lanetan, taldearen 35. urteurrenaren bueltan», argitu du.

Konpartsa Eguna

Patrioiaren egunaren ostean, Konpartsa Eguna zetorren. Goizean, haurrek tailerrak izan zituzten, konpartsek herriko kaleak hartzen zituzten bitartean.

Egun osoko egitaraua zuten aurretik konpartsek, jai giroa borbor ipintzeko herrian.

Villabonan zeresan handia izan du betidanik errebotek eta jaietan ere izan zuten bere lekuri kirol berezi honek plazako frontoian. Aipagarria izan zen, beste-



Santio jaietako Koadrila Eguneko bazkariaren irudia; urtero bezala Etxeondoko zuhaitzian bildu ziren. HITZA

«2010eko jaietan herritarren parte-hartzea ikaragarria izan zen»



Uztailaren zinegotzi ohiaren omenezko liburua aurkeztu zuten. HITZA

etik, Eresargi abesbatzaren 25. urteurrenaren harira, Mikel Urdangarin abeslariarekin eskaini zuten ekitaldia. Uztailaren 28an berriz, gazteak izan ziren protagonista eguerditik aurrera. Kuadrilen arteko baltsa jaietsiera antolatu zuten Onddo Gazte Asanbladako kideek. Arrakasta handia izan zuen ekitaldiak, parte-hartzaile asko eta jende ikaragarri bildu baitzen Oria ibaiaren ertzetara. Ondoren bazkaria izan zuten eta gauen berriz, Lain, Sixty Sexers eta Esne Beltzaren kontzertuak izan ziren.

«Zer esanik ez uztailaren 30ean egin zen Koadrilen Egunaren inguruan. Egun paregabea atera zen. Urtero, Etxeondoko zuhaitzian koadrilen bazkaria egiten da», dio Izagirrek.

Eguraldia ere lagun izan zen eta bertaratutako 1.300 lagunek nahiko lan izan zuten itzala topatzeko. «Etxeondo kolorez betetzen da, koadrila bakoitzak bere elastiko koloretsu eta umore onez. Bazkal ondoren, herriko txarangaren erritmoan herria zeharkatu zen», Izagirrek azaldu bezala.

Azkeneko eguna ere indartsu etorri zen Villabonako kaleetara. Goizean diana eta sokamuturra izan zituzten goiztiar eta berantiarrenzat. Etxeko txikiak berriz, jolas parkeaz gozatzeko aukera izan zuten egun guztian zehar. Arratsaldeko lehen orduan, I. Giza Proba Lehiaketa izan zuten Maiatzaren Lehena plazan. «Legealdi honetan, Santio jaiak parke eta parte-hartzaileak antolatzea izan da udalaren asmoa. Hasierako asmoak betez ari gara esan daiteke. Herritar eta eragile desberdinen laguntzarekin aurreikuspenak betetzea lortu genuen», Hautsiren arabera. Santio jaiak, Ordiziako jaietako egun batzuekin bat egiten dute. Hala ere, jende asko ibili zen, bat bat aste buruan. Haurrek, helduak eta gazteak egun eta gauz jai giroan ibili ziren. «Aipagarria izan zen, gazteak izan zuten parte hartzea, baita antolaketa ere. Muralak margotzen aritu ziren, baltsen jaietsiera egin zen, bazkaria... Gazte Asanbladak lan handia egin zuen jaietan», dio.

Remi gogoan

Aurreko urteko jaiak, zorigaitzoko gertaera izan zuten. «Udaleko ordezkari eta lagun ezin hobea zen Remiren heriotza bizitu genuen», zinegotziaren arabera.

Herririk saminez oroitzen du gertatua. «Aurtengo jaietan ere present izan nahi genuen laguna», dio. Danborradan, azken eguneko ekitaldian, uneoro familiari eta laguneri babesa eman nahian egin ziren. Aurreko urteko jaietan baino indar polizialen presentzia txikiagoa izan bazen ere, 2010eko Santio jaietan ere herrian zehar ibili ziren hormetako karteletan pantarkak kentzen. Udaletxera ere, egunero deitu zuten.

«Orokorrean, udala gustura gertatu da aurtengo jaiekin eta datorren urtekoetan hobetu daitekeen hobetzean saiatuko gara», amaitu du esanez Izagirre zinegotziak.

Urte osoko egitaraua

Gainontzean, urtean zehar kultur eskaintza desberdinak eskaintzen dituzte Udalak eta herriko eragile desberdinek.

Aurten, aipagarria, Oinkari dantza taldearen 35. urteurrenaren harira antolatutako ekitaldiak, Aljibeko erakusketak esaterako, Dantza Astea... Aizkardi Mendi Elkarrekin antolatutako Mendi Astea ere antolatu dute, kantaldiren bat, zinema euskaraz... Egitarau oparoren aurrean, kultur arloan, Villabona bizirik dagoen herria dela esan daiteke hortaz.

«La participación de los billabonatarra en las fiestas de 2010 fue increíble»

→ El concejal Hautsi Izagirre ha hecho una valoración de las últimas fiestas. Por una parte, ha destacado la alta participación de los billabonatarra, y por otra, que las fiestas tienen mucho tirón en los pueblos de alrededor. En la últimas fiestas fue la coral Eresargi la protagonista del txupinazo, ya que en 2010 cumplía 25 años. Junto con el txupinazo durante las fiestas ofrecieron un emotivo espectáculo junto a Mikel Urdangarin. Durante estas últimas fiestas por primera vez, también hubo regatas gracias a Onddo Gazte Asanblada, que se retó con los jóvenes de Anoeta. Otra de las actividades que contaron con mucha participación fue la tamborrada, donde participaron 180 billabonatarra. Durante el día de Santiago hubo el tradicional Kros Popular y también celebraron la Euskal Jaia. «Tuvo mucho éxito. La organización corrió a cargo del grupo de dantza Oinkari que cumplía su 35 aniversario», aclara Izagirre sobre la Euskal Jaia. Para terminar hay que recordar que durante las fiestas los billabonatarra tuvieron muy presente a Remi Ayestaran, que murió un año antes. En cuanto al resto del año Izagirre aclara que este año hay que resaltar la exposición de Oinkari por el aniversario, la Dantza Astea... Así como, otras muchas ofertas culturales.

Jasangarritasuna bilatzeko ahaleginetan

Kontsumo Taldeen eta erosketa zein kontratazio publiko berdearen aldeko apustua ere egiten dute

Villabonako Udalak, jasangarritasunaren aldeko apustu garbia egiten du eta horretarako urrats garrantzitsuak ematen ari da. Batetik, zaborraren kudeaketaren inguruan legealdia hasi zenetik gaiaren inguruko gogoeta bideratu du: herriko zaborra ahalik eta hobekien kudeatzeko dauden aukera desberdinak aztertuz, argi izanik Gipuzkoa hainbat herritan esperientzia interesgarriak abiatu dituztela. Bestetik, argi du Kontsumo Taldeak bultzatu behar direla, horretarako «ahalegin berezia» egin duelarik. Bukatzeko, erosketa zein kontratazio publiko berdearen aldeko apustu garbia egiten du udalak.

Zabor bilketa

Udalak inguruko herrietako esperientziak ezagututa herriko zaborraren kudeaketaren inguruko ikerketa egiteko asmoa dauka.

Zubietako errausgailuari aurre egiteko beste alternatiba erreala badaudela kontuan hartuz, hurrengo urteetan Villabonak hainbat erabaki hartu beharko ditu.

Kontsumo Taldeak bailaran

Bailaran Kontsumo taldeak sortzeko udalak «ahalegin berezia» egin duela dio Alaitz Bilbao teknikariak. Horiek horrela, udalak ENHE eta Biolurrekoekin batera Kontsumo Taldea sortzea sustatu du. Hilean kuota bat ordainduta, trukean, baserriarrak baserriaren ekoiztutako garaian garaiko barazkiekin betetako otarra emango du astero. Horixe izango litzateke Kontsumo Taldean erosleak eta saltzaileak hitzartuko luketena.

Ingurumenarekiko errespetua

Iazko ekainaren 4ean erosketa eta kontratazio publiko berdearen aldeko konpromisoa sinatu zuen Villabonako Udalak. Horrela, «udalak hemendik aurrera bere erosketa eta kontratazioen ingurumen irizpideak kontutan hartuko dituenaren konpromisoa hartu du. Udalak ulertzen du gizartearekiko erreferente bezala jokatu behar duela eta ekimen hauek martxan jartzen lehenak izan behar dutela ingurumenarekiko errespetuzko jokaerak beste sektoreetara zabaltzeko», dio Bilbao.

Udalak bere jardunean natur baliabideak aurreztu eta hondakin sorrera murrizteko pausok eman ditzake eta herritarren aurrean jarrera eredugarria era-



Kontsumo Taldea sortu nahi dute Villabonan; baserriarrak ekoiztutako garaian garaiko barazkiak eskuratzeko aukera eskainiko litzateke.

kusten du. Horretarako, lehenik eta behin, hurrengo urteetan landuko diren produktuen hautaketa egin da eskualdeko ingurumen eta Agenda 21en teknika-rien laguntzaz. Orain udal bakoitzak bere errealitate eta funtzionamendura egokitu beharko du eskualde mailan ezarritako erosketa eta kontratazio publiko berdearen politika.

Segundo Montes

Era berean, Villabonako Udala, Asteasu, Aduna eta Zizurkilekin batera, Segundo Montes komunitatearekin dago senidetuta.

Segundo Montes El Salvadorren dago eta senidetzearen oina-

rrietako bat hemendik herriak aurrera ateratzeko laguntzak bideratzea da. Laguntza hauek alor desberdinak biltzen dituzte: etxebizitza, hezkuntza, nekazaritza, ura... Laguntza solidarioa eta ekonomikoa jasotzen dute, hortaz.

Pasa den maiatzean, gainera, II. Senidetze Eguna egin zen Adunan. Lehenengoa Zizurkilekin izan zen eta bietan Aiztondo bailarako udal ordezkariak izan ziren, eta baita, herritar ugari ere. Iaz El Salvadorreko ordezkariak ere izan ziren gurean.

Segundo Montes duela 20 urte sortu zuten eta asko hazi da. Gaur egun, jada ur edangarria eta argiteria dituzte. Irisingarritasunean ere asko hobetu dute. Eredu ezberdinetan asko aurreratu badute ere, kezken artean dute azpiegitura guztiei nola eutsi. Orain alor produktiboari begira jarrita daude, hau da, ekoizpena bultzatu eta azpiegiturak kudeatu nahi dituzte eta horretan lagunduko dio hortaz, Villabonako Udalak, Aiztondo bailarako beste udal-ekin batera.

Apuestas por un futuro sostenible para todos

➔ Para el Ayuntamiento de Villabona es muy importante apostar por la sostenibilidad. Para ello en primer lugar, se ha mostrado a favor de la recogida de residuos puerta a puerta, tal y como lo hacen ya en Oiartzun, Usurbil y Hernani. La Mancomunidad de San Marcos apuesta por el quinto contenedor para la materia orgánica, pero en Villabona no están por la labor. «Es la única alternativa a la incineradora de Zubieta», aclaran desde el ayuntamiento. «También es la alternativa más económica, ya que en seguida se amortizan los gastos iniciales», señalan.

Lo más difícil va a ser concienciar a los ciudadanos: «Si miramos alrededor vemos que necesitamos formar a la gente sobre el reciclaje». Saben que será complicado, pero desde el consistorio aclaran que seguirán trabajando a favor de la recogida de residuos puerta a puerta. También han apostado por los Grupos de Consumo. Cada persona paga una cuota mensual por la cual recibe productos de temporada frescos directamente de la mano del baserriarra cada semana.

Asimismo, el ayuntamiento firmó ya el año pasado un acuerdo para que todas las compras y contrataciones públicas que hagan sigan ciertos criterios «verdes». «El ayuntamiento sabe que ser un referente para la sociedad y por eso es muy importante que haya firmado el acuerdo para que las actuaciones sean de respeto hacia la naturaleza», aclara la técnica Alaitz Bilbao.

Para terminar hay que recordar que el Ayuntamiento de Villabona, junto con Aduna, Asteasu y Zizurkil, está hermanado con la comunidad de El Salvador Segundo Montes. Gracias a este colaboración la comunidad cuenta con ayudas económicas para desarrollar proyectos educativos, relacionados con la agricultura, con el agua...



Adunan egin zuten Iaz II. Senidetze Eguna; Villabonako udal ordezkariak izan ziren herritar ugarirekin batera. A. MAZ



Gizarte Zerbitzuetan inoiz baino lan gehiago dutela diote udaleko arduradunek.

Krisi ekonomikoaren egoeraren harira, udaleko arduradunek lanez leporaino dabilta

Maixabel Arrieta alkatea eta Josetxo Azpeitia arduratzen dira udaleko gizarte zerbitzuez. Teknikari lanetan berriz, herritarrekiko bitartekari lanetan, Menchu Julian aritzen da.

Azkenaldian, eguneroko eskaria asko handitu da gizarte zerbitzuetan. Atzerritarren eskaerak nabarmen egin dute gorantz, bertakoen eskaerak gora egin duten bezala. «Hala ere, nabarmena da atzerritarren egoera kaskarragoa dela», Menchu Julianen arabera.

Kalean sarritan entzuten den mezua da, gizarte zerbitzuak atzerritarren beharretara zuzentzen direla, orokorrean. Iritzi hori aldatzea beharrezkoa dela uste dute udaleko arduradunek, krisi ekonomikoak bertako herritarrek ere harrapatu dituelako.

Gizarte zerbitzuetara, laguntza ekonomiko bila joaten dira normalean herritarrek. Hala ere, aipatu behar da laguntza politikak eskaintzeko, beste hainbat zerbitzu ere eskaintzen dituztela Villabonako Udalean.

Ongizate sailean, norbera modu autonomoan moldatzeko edota familian, komunitatean eta oro har, gizarte integratzeko egiten dute lan. «Herritarrei zerbitzu integrala eskaintzea da gure lana», dio Julianek.

Gizarteratze eta prebentzioko prozesuak ahalbidetuz, gizarte partaidetza bideratuz eta elkartasuna sustatuz aritzen dira lanean. «Laguntza ekonomikoaz gain, heziketak garrantzia handia izaten du. Laguntza eske datorren pertsona bakoitzari diagnostiko sozial bat egiten zaio, lan pertsonala egiterako garaian. Laguntza behar duen pertsona bakoitzarekin, helburu desberdinak dituen lan proiektu bat egiten da. Erabilitzaileak parte hartzea garrantzi-

tsua izaten da, bere lanik gabe laguntzak moztzen baitira», adierazi du teknikariak.

Zerbitzuak eta betebeharrak

Gizarte zerbitzuek, izen bereko legearen pean egiten dute lan. Lege horren arabera, udalek zerbitzuak eskaintzeaz gain, betebeharrak batzuk dituzte. Herritarren eskubideak bermatzean egiten dute lan, hori baita udalaren betebeharra.

«Krisiak, kolektibo ahulagoak harrapatu ditu gehienbat, emakumeak eta atzerritarrak izango lirakeelarik laguntza eskari gehien egiten dituzten perfilak», argitu du. Udalak, pertsona ba-

koitzaren egoeraren balorazioa egiten du. Eusko Jaurlaritzara bidaltzen dituzte ondoren egindako eskaerak. «Jaurlaritzak du guk ematen ditugun laguntzen konpetentzia eta bera da ebazpenak egiten dituen», azaldu du.

Udala, laguntzen bitartekari lanea egiteaz arduratzen da. Kudeaketa egiteaz gain, ordea, pertsona bakoitzaren jarraipena egiteaz arduratzen dira udalean.

Momentuko egoerari erreparatuta, lanaskorekin badabilta ere, aurrera begira gizarte zerbitzuek ezbaian izango dute gaur egun egiten duten lan arlo bat. Izan ere, Lanbide eta INEM izango dira prestazioen kudeaketaz arduratuko direnak.

Berdintasun plana bere horretan

Berdintasun planaren inguruan aipatu, aurreko urtean lan handia egin zuela udal taldeak herriko egoeraren diagnostikoa egiten. Lanak amaitu ez badira ere, gaur egun, sail honetako emakumea-

Emakumeak eta atzerritarrak dira krisia dela eta kaltetuen daudenak

ren inguruko gai hau gelditua dago. «Lanekin jarraitzea beharrezkoa da, emakumearen parekidetasunaren inguruan lan handia baitago egiteke», Julianen arabera.

Las ayudas políticas también están en crisis en los últimos meses

Las peticiones de ayuda en los servicios sociales del ayuntamiento a ido creciendo en los últimos meses según la alcaldesa Maixabel Arrieta y Josetxo Azpeitia, responsables de la sección. Arrieta y Azpeitia cuenta con la ayuda técnica de Menchu Julian. Cuentas que sobre todo han subido las peticiones de extranjeros, aunque recalcan que la población debe quitarse de la cabeza esa idea tan extendida de que los servicios sociales se dirigen sobre todo a la comunidad extranjera. Normalmente los ciudadanos piden ayuda económica, pero no es la única función del departamento. En la Bienestar ofrecen un servicio «integral», por lo que ofrecen ayuda para que cada cual pueda desarrollarse de forma autónoma, de forma que se pueda integrar en la sociedad.

El ayuntamiento valora la situación de cada persona y después mandan al Gobierno Vasco toda las peticiones, de manera que el ayuntamiento se ocupa de la gestión y de hace un seguimiento de cada persona. En estos momentos tienen mucho trabajo y aclaran que todavía no saben si seguirán haciendo el mismo trabajo, ya que serán Lanbide e INEM quienes se ocupen en un futuro de las prestaciones. Sobre el plan de Igualdad Julian aclara que durante el último año el consistorio ha hecho un gran esfuerzo para hacer un diagnóstico sobre este tema. Este trabajo todavía no ha acabado y la técnica aclara que todavía hay mucho por hacer. «Josune Arretxe hizo un gran trabajo en este tema. Su vacío es muy grande», señala.

En cuanto a la inmigración el ayuntamiento contrató al grupo Anitza para ver cuál es el nivel de integración de la población inmigrante en Villabona, sus costumbres, su relación con el euskara... Tolosaldea Garatzen también está realizando este trabajo.

El ayuntamiento también trabaja para terminar con los malos tratos a las mujeres, así como para terminar con las agresiones sexuales, dando información y ayuda psicológica y jurídica, entre otros.

«Josunek lan handia egin zuen emakumearen inguruan. Hutsune handia izan da guretzat, Josune gure arteatik galtzea», argitu du Julianek.

Etorकिन inguruan ere, lanean ari dira Villabonako udalean. Anitza taldea kontratatu zuen udalak. Herriko diagnostikoa egitea beharrezkoa ikusten zuten, bertara bizitzera etorritako atzerritarren integrazio maila, bizitzeko ohiturak, euskararekiko lotura eta beste hainbat alderdi lantzeko.

Tolosaldea Garatzen

Tolosaldea Garatzen ere, egoeraren ikerketa egiten ari da, bikerketak koordinatzea beharrezkoa izan beharko duelarik.

Krisi egoerari prestazioekin laguntza emateaz gain, beste hainbat lanketa egiten ari dira Gizarte Zerbitzuetatik Villabonako herritarren ongizatea bermatze aldera.

Batetik, ezinduekiko eta adinduentzako lanketak eta laguntzak eskaintzen dituzte. Familia, haurrak eta gazteekiko ere, hainbat lan egiten aritzen dira, eskuhartze hezitzaileak eginaz esaterako.

Tratu txar eta sexu erasoetako egoeretan ere arreta zerbitzua eskaintzen diete biktimei, horretaz gain, laguntza psikologikoa eta laguntza juridikoa ematen dituzte udaletik. Mendekotasunaren legeari buruzko prestazioak eskaintzeaz ere arduratzen dira.

Ongizatea emakumearen sailean beraz, lanketa desberdin ugari eginez ari dira Villabonako Udalean.

Herritarren beharrak asetzea helburutzat hartuta, zerbitzu ugari eskaintzen dituzte gizarte zerbitzuen bidez. Arretarako egunak, astelehena, asteartea eta asteazkena izaten dira. Erreboteko plazara jo beharko du, laguntza behar duen herritar orok.

Antzokiko gortinak zabaltzera doaz



Pasa den urtarrilean sinatu zuten hitzarmena EHAZEko eta udaleko arduradunek.

Se abre el telón

➔ Hace ya un años que se creó una nueva asociación para impulsar el teatro en Euskal Herria, tanto amateur como profesional; Euskal Herriko Antzerkizale Elkarte. EHAZE ha firmado acuerdos con diferentes localidades y entre ellas está Villabona. Gracias al acuerdo alcanzado el ayuntamiento quiere favorecer la creación de grupos de teatro en la localidad.

También acordaron organizar diferentes actuaciones y talleres cada mes. «Queremos que todo el mundo participe en este proyecto, da manera que los precios de las inscripciones estarán a buen precio. Los billabonatarras pagarán un precio y quienes se acerque de otras localidades otro», señala Aitziber Cenzano.

Las primeras actuaciones ya han empezado. Durante enero se pueden ver las obras *Greban gaude* de Lakrikun y *Azken portua* de Deja bu Panpinak

Euskal Herriko Antzerkizaleen Elkartearekin hitzarmena sinatu zuen udalak eta herriko zenbait eragilek urtarrilean

Hitzarmenari esker, ekitaldiak eskainiko dira herrian antzerkizaletasuna bultzatzeko

Euskal Herriko antzerkigintza bultzatu asmoz, elkarte berria sortu zen iaz.

Maila profesionaleko eta amateur mailako antzerkigintzaren elkarlan bat egiteko asmoarekin sortu zuten elkarte.

2011an, Euskal Antzerkia eta Antzerkizaletasuna sustatze bidean, SAREA eratzeari ekingo dio EHAZEK Euskal Herriko hainbat udalerriekin hitzarmenak eginez.

Lehena, Amasa-Villabonako udalerriarekin izan zen pasa den urtarrilean. Horiek horrela, udalak kultur eragile desberdinen oniritzia jaso nahi izan zuen urtea hasi eta segituan, herritar guztiaren artean kultur dinamika indartsu bat eratze aldera.

Herritik herriarentzat lan egitea lortu nahi da hitzarmenarekin

Euskara indartu eta euskal kultur eskaintza zabaltzeko balioko du

Eskaintza handituko da, lan ugari taularatzeko aukera izango da

«Haurrak garenean, ikastolan antzerkigintza lantzen da, baina behin adin batera heltzean, amaitu egiten da. Ikastaroek jarraikortasuna izatea beharrezko ikusten dugu», dio Aitziber Cenzano teknikariak.

Antzerki talde desberdinak sortzea helburu

Hitzarmena onartu arte, Villabonan ez zegoen antzerkia lantzeko tailerrik.

Hitzarmen honen ostean, ordea, antzerki talde desberdinak sortzea izango da udalaren helburua, adin desberdinetako jendeak parte hartuko duen dinamika sortuz. Aurrera begira, ekitaldi desberdinak eskainiko dituzte.

Hitzarmenaren ondoren, herrian hilerio antzeppen desberdinak eskaintzeko eta kultur egitaraua ugartzeko lan egingo da. Egitaraua ugartziaz gain, antzerkizaletasuna bultzatu eta sustatzeko asmoa azaldu zuten, herriko kultur talde desberdinekin,

pasa den urtarrilaren 21ean egingo dako aurkezpenean.

Urte guztiko dinamika bat sortze aldera, hilerio antzerki tailerrek egingo dira Gurea zinemako aretoan.

«Parte hartzeko aukera zabala izango da, izen-emateak prezio onean eskainiko direlarik. Herriarrentzat salneurri bat izango dute eta inguruko herrietatik etorritako parte-hartzaileentzat beste salneurri bat ezarriko da», azaldu du Cenzanok.

Urte hasieratik hasi eta urri aldera bitartean, ikastaro laburrak eskainiko dira eta urritik ekainera bitartean, ikastaro iraunkorrak eskainiko dira, goizetan zehar.

EHAZEren proposamena abiapuntu

EHAZEren aldetik proposamena jaso eta baiezkota eman zioten udal ordezkariak, izan ere «euskararentzat eta euskal kulturarentzat proiektu indartsua izan daiteke honakoa. Tailerrek, antzerkia, eskaintza guztia euskaraz egingo da», Hautsi Izagirre Kultur zinegotziak azpimarratu bezala.

Horrela, amateurren diren talde eta euskaldun berriak antzerkigintzaren mundura gerturatu, euskara indartu eta euskal kultur eskaintza zabaltzeko balioko du. Euskaraz ikasten duten taldeak ere antzerkizaletasunean barneratzen badira, hizkuntza ikasteko ere, erraztasun gehiago izango ditu euskaldun berriak.

EHAZEK 15.000 euro jasoko ditu (zati batekin EHAZEri diruz lagunduko zaio). Ordainketa hitzarmena sinatu eta hirurogei eguneko epean gauzatuko delarik. Hilabetean bi kultur ekintza antolatuko dira haur, familia eta adin guztietarako.

Haurrentzako eskaintza, gehienbat Gurean eta hilabetearen azken igandeetan izango da, 16:30ean. Helduentzako ere, eraikin berean izango dira antzezlanak, hilabetearen bigarren ostiralean, 22:30ean.

Talde profesionalekin sarreren prezioa 8 eurokoa izango da (aurretik 6 euro). Jubilatua, langabetea, EHE eta EHAZEko bazkideentzako beherapenak izango dituzte.

EHAZEren herriko kultur era-

gileekin parte hartzeko nahia nabarmendu behar da baita, hainbat jarduera edo ekitaldien bidez egingo du, beti ere dinamika horietan antzerkiak zeresana izan badezake eta euskaraz badira. Honela, urtean zehar antolatutako daitezkeen egitasmo, egun edo jai berezietan parte hartzeko ahalegina egingo dute.

Esaterako, Bakarrizketa Lehia-ketak, El Salvador-eko herri anai-tuaren jaialdia, ospakizun jakinak, Euskaraz Bizi Eguna, herriko jaiak eta abar. «Herriatik eta herriarentzat sortuko direnak» nabarmentzen dute udaleko arduradunek.

Lehen pausoak

Urtarrilaren azken asteburuan hasi ziren ekitaldiak.

Urtarrilaren 28an, *Greban gaude* antzezlan jendetsua izan zen Lakrikun taldearen eskutik. Urtarrilaren 29an berriz, antzerki tailerrarekin hasi ziren Ainhoa Alberdi irakasle lanetan zela. Hurrengo egunean, berriz, *Azken portua* lana eskaini zuen Deja bu Panpin laborategiak.

Euskarari bultzada ematen zaiolako, hurrengo urteari begira ere, kultur ordenantzak egitea be-



Sinatutako akordioaren haritik *Greban gaude* antzezlan ikusi ahal izan zen orain gutxi Gurean.

harrezko ikusten du udalak, gehienbat kultur eragileak parte aktiboagoa izan daitezkeen. «Gaur egun, eragile batzuk parte hartzen dute baina lan eta konpromiso gehiago hartzea beharrezkoa da», Cenzanoren arabera.

«Gurea zinema izango da topalekua baina, antzerkia herri osoan indartzea nahi dugunez, kale antzerkia egingo da, Gaztetxean, Gazte Lekuko inaugurazioan, zaharren egoitzako berrikuntzen inaugurazioa egiten denean, be-

raien adineko antzezleek eginiko lana eskainiz...», Cenzanoren hitzetan.

Herriatik herriarentzat lan egitea lortu nahi da. Aurtengo urtean esaterako, «ez dut uste antzerki aste indartsu bat egiteko gai

izango garenik baina hurrengo urteari begira jarrita, ziur eskaintza asko ugaritzea lortuko dela, talde desberdinen lanak taulartzeko gai izango baitira egingo den lanaren emaitza gisan», gaineratu du.



Lehen aldiz Antzerkizale Eguna ere egin da Villabonan; azaroan izan zen egun osoko festa eta Gurean lehen antzerkizale saria eman zioten Iñaki Beobideri.

Udala herriaren ordezkari lanetan

2007. urtean, Villabonako udal gobernu berria eratu zenetik, zeregin eta zailtasun ugari izan dituzte.

Lanei eta arazoei, konponbide egokiena ematen saiatu dira udal ordezkariak, Villabona herri bizi, dinamiko eta euskaldun bat eratze bidean. 2010eko urteari dagozkionean, hainbat proiektu eta egitasmo atera dituzte aurrera, herritarrentzat zerbitzu egokiak, ekintza parte-hartzaileak eta eremu zaharrak egokitu edo eta berriak sortuz.

Antolamendu egokia

Herriaren antolamendu egoki baten aldeko lanak, epe motzeko emaitzak ematea ekarri du eta epe luzera begira, izango dena ere ahalik eta egokien bideratzen gogor ari dira lanean.

Bizi dugun testuinguruan, krisiari aurre egitea izan da udalak izan duen lehentasunetako bat, herritarren ongizatea bermatzearekin batera.

Ondorengo lerroetan herritarren iritziak bildu ditugu.



↓ Inkesta

Zer iritzi duzu egungo udal gobernua azken urte honetan egin duen kudeaketaren inguruan? Aurrera begira zein hobekuntza egin behar direla uste duzu?

Garazi Aranburu

«Bizi dugun egoera eta garaia kontutan hartuta, udal gobernu lanean gozoz ari dela esango nuke. Egindako lanen artean bat aipatzekotan, Aljibea aipatuko nuke, asko gustatu zait. Iraganeko urtanga bat mantenduz erakusketa gune bat sortzea oso positiboa iruditzen zait, iragana eta oraina uztartzen jakin izan dute».

«Aurrera begira haurrentzat egokitutako eremu bat faltan botatzen dut».

Bixente Etxaniz

«Villabonako Udalaren kudeaketa, ahal duen edo uzten dioten eran, egokia da. Zailtasun asko dituzte EAEko Gobernuaren alde. Euskal Herrira eta herritarra begira lan egin behar, Madrilgo txotxongilo bihurtuak daude eta bertako ordezkarietateak ixten dizkiete».

«Bizi dugun testuingurari, aurrera begira, esperantzaz begiratzen diogu, horrek ere, eragina izango duelarik Villabonako Udalean eta herrian».

Felix Perez

«Beno, nire kasua berezia da, ez dakit euskaraz eta udalak etxeetara bidaltzen duen informazioa eta eskaintzen dituen zerbitzuak erabat euskaldunak dira eta ezin izaten naiz moldatu. Bi hizkuntzataraz itzea nahiko nuke, badut eta herriko gaiekiko interesa. Gainontzean, udalaren lana ongi ikusten dut, gauza asko ari da aldatzen. Orainxe zaharren lokal berria irekiko du, nire ustez, beharra zegoen eta lan ona egin dute».

Juan Gonzalez

«Udalaren kudeaketaren inguruko gaietan ez nago oso jarria, baina herrira begira jarrita ongi ikusten dut, egia esan, onera aldatzen ari dela esango nuke. Herri nahiko txikia izanik, zerbitzu asko eskaintzen dira, inguruko herriekin konparatuta; haurrentzat jolasleku ugari daude, zaharren egoitza berria... Adin guztientzako eskaintza dagoela esango nuke. Hutsuneei begiratu eta ez nuke egiteko berezirik aipatuko».

Arantxa Etxezarreta

«Udalaren kudeaketa egokia dela esango nuke. Saiatzen dira arazoak konpontzen, aparkalekuena esaterako. Hala ere, arazo zehatz hori hor dagoela esango nuke».

«Bestetik, bi semeren ama izaki, Gazteleku berria irekitzera doaz eta ez dakit zer dinamika hartuko duen baina orokorrean, adin talde horrentzako ekitaldi eta egitasmoen beharra ikusten dut. Egitekorik ezean, tabernara jo ohi dute eta gazteek».



Villabonako garai bateko itxura ikusi daiteke honako argazkietan.